

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZIGOITIKO UDALA

#### Zergadunaren 2020ko egutegia aldatzea

Alkatearen 2020ko maiatzaren 14ko erabaki, zergadunaren 2020ko egutegia aldatzea onetsi zen.

ALHAOn argitaratzen da, zabalkundea emateko eta guztiek jakin dezaten.

ZERGA	BORONDATEZKO ALDIA	HELBIDERATUTAKO ORDAINKETAK NOIZ KOBRATUKO DIREN
TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA	2020-03-01 – 2020-06-01	Maiatzaren hasieran
HIRI ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ETA EZAUGARRI BEREZETAKOENA	2020-08-01 – 2020-09-30 2020-10-01 – 2020-11-31	Lehenengo epea (kuotaren % 50 – irailaren hasieran) Bigarren epea (% 50eko kuota) – azaroaren hasieran
LANDA ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA	01-08-2020 – 31-11-2020	Azaroaren hasieran
ZABORRAK BILTZEAREN TASA	01-08-2020 – 31-11-2020	Azaroaren hasieran
ABELTZAINZA KANONA	2020-08-01 - 2020-11-31	Azaroaren hasieran
LUBERRITZEAK	2020-08-01 - 2020-11-31	Azaroaren hasieran
JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA	2020-11-01 – 2020-12-31	Abenduaren hasieran
IGERILEKUAK	2020-07-01 – 2020-08-31	Igerileku zerbitzua irekiz gero, kobratuko da tasa. Hurrengo urteetan automatikoki berritzea onartu duten interesdunen aurreko urteetako abonamenduak jasotzen dira zerga erroldan -- Uztailaren bukaeran. Urteko abonamendu berrietarako, eskaerarekin batera tasaren autolikidazioa eta ordainagiria aurkeztuko dira.

#### ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Ordaintzeko tokiak:

- Kutxabanken eta Laboral Kutxaren bulegoetan
- Internet bidez, web orri honetan: [www.zigoitia.eus](http://www.zigoitia.eus) (Nire ordainketa)

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Zigoitiko Udalak zuzenean kudeatuko du kargua ordainketa helbideratu den banku kontuan.

#### INFORMAZIOA, ZERBITZUAK ETA IZAPIDEAK

Udaletxean. Telefonoa: 945 464041; astelehenetik ostiralera; ordutegia: 09:00-14:00.

Faxa: 945 464052. Posta elektronikoa: [zigoitia@zigoitia.eus](mailto:zigoitia@zigoitia.eus)

#### GOMENDIOAK

Nola banku helbideratzeetako altak edo aldaketak hala hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Zigoitiko Udalean izapidetu beharko dira.

#### PREMIAMENDU ALDIA

Borondatezko aldia amaitu eta hurrengo egunean hasiko da premiamendu aldia, hau da, administrazio premiamenduko betearazte bidea dagokion errenergia aplikatuta (Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra, 28. artikulua).

Era berean, alkate lehendakariak egutegi hau aldatzeko ahalmena gordetzen du, baldin eta behar bezala justifikatutako arrazoi teknikoek galarazten badute aipatutako baliabide ekonomikoak ezarritako datetan kudeatzea; kasu horretan, herritarrei behar besteko aurrerapenarekin jakinaraziko zaie.

Ondategi, 2020ko maiatzaren 21a

*Alkatea*

*JAVIER GORBEÑA GARCÍA*